



**Arartekoaren 2020R-177-19 Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 31koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio bizikidetzta-unitateari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta aitorturiko etxebizitza-prestazio osagarria jasotzeko eskubidea deuseztatzen duen ebazpena berrius dezala, jatorrizko ondasunen ziurtagiria ez aurkeztu izanagatik ez dagoelako horiek deuseztatzeko arrazoirik, izan ere, kexagilea jatorriz Aljeriakoa den arren, Espainiako nazionalitatea du 2013tik.**

### Aurrekariak

Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, ez zegoelako ados bere bizikidetzta-unitateari aitorturiko diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria deuseztatu zuen Lanbideren 2018ko abenduaren 19ko ebazpenarekin. Honako arrazoi hauek eman ziren laguntza horiek kentzeko:

*-“Ondasun higiezin bat izatea jabetzan, ohiko etxebizitzaz gain. Lanbidek ez daki baldintza hau betetzen duzun, aurkeztutako jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiriak ez duelako balio.*

*Dagokion modalitatean, Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular gisa betebeharrak, eta indarreko arauen arabera aplikatu beharrekoak diren guztiak, ez betetzea.*

*2018/09/06an hitzordua zenuen Lanbideko bulegoan, EAera bueltatu zirela esateko, eta ez zinen aurkeztu” (sic)*

Ebazpen horretan, Lanbidek adierazi zuen bi prestazioengatik bidegabe jasotako zenbatekoengatik itzuli beharreko zenbatekoak 9.581,92 eurokoak (diru-sarrerak bermatzeko errentarena) eta 1.550 eurokoak (etxebizitzarako prestazio osagarriarena) zirela, arrazoi hauek zirela tarteko:

*-“DBE kobratzen baimendutakoa baino epe luzeago batean Euskal Autonomia Erkidegotik (EAE) kanpora egindako irteerengatik  
18/08/20tik 18/09/10ra*

*Mantenu pentsioa  
18/05/16 autoaren arabera*

*Beste arrazoi batzuk  
Epe barruan jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria ez aurkeztea”*

Kexagileak guraso bakarreko bizikidetzta-unitatea osatzen du eta hiru adingabe ditu ardurapean. Langabea da eta diru-sarrerak bermatzeko errentaz eta etxebizitzarako





prestazio osagarriaz gain, ez du beste diru-sarrerarik bizikidetz-unitatearen oinarritzko premiak asetzeko. Jatorriz aljeriarra da, baina nazionalitate horri uko egin zion 2013an Espainiako nazionalitatea eskuratzeko; bi herrialdeen artean ez baitago nazionalitate bikoitza baimentzen duen hitzarmenik. Aipaturiko urtetik aurrera, erregistro zibilean zehazten denaren arabera, Espainiako nazionalitatea eta nortasun-agiria ditu.

Horretaz gain, genero-indarkeriaren biktima izaera du eta bikotekide ohiak —auzi-iheslaritzat jo dena— urruntze-agindua du ezarria zigor-epaiketa gauzatzen denera arte. Hori egiaztatzeko, prozedurako hainbat fasetan, behin-behineko neurri zibilak ezartzen dituen autoa aurkeztu zuen Lanbiden eta jarduketak abiarazi ditu doako laguntza juridikoaren bidez bere seme-alaben aita salatzeko, mantenu-pentsioak sistematikoki ez ordaindu izanagatik. Iraungi ez ziren jarduketak.

Hortaz, zaurgarritasun-egoera pertsonal, familiar eta sozioekonomiko larrian dago eta prestazioen iraungipenak eta bidegabe jasotako zenbatekoen erreklamazioak egoera hori larriagotzen dute. Gaur egun, oinarritzko gizarte zerbitzuetako bi gizarte-hezitzailek artatu eta laguntzen dute.

Iraungitzeko prozeduraren hasieran, Lanbidek bi alderdi justifikatzeko eskatu zion:

-Bata, EAetik kanpora egindako bidaia batetik itzuli izanaren berri ez emateagatik. Kexagileak bidaia horren berri eman zion alde zurretik Lanbideri, baina ahaztu egin zitzaion itzuli zenean jakinaraztea.

-Beste bat, Aljeriako jatorrizko ondasunen ziurtagiria behar bezala legeztatuta aurkezteko eskatuz Lanbidek egin zion eskaerari buruzkoa. Jaso ostean, hasiera batean, kexagileak bere jatorrizko herrialdea eskatzen saiatu zen. Bere kudeaketan emaitza gisa, bere alegazioei dokumentu bat erantsi ahal zien; agiri horretan, Aljeriako Gobernuak egiaztatzen zuen kexagileak “ez zuela jabetzarik” aipaturiko herrialdean, baina kexagileak ezin izan zuen behar bezala legeztatu Lanbideren 2017ko irizpideei jarraikiz, une horretan ez baitzeukan nazionalitate hori; espainiarra bakarrik zeukan.

Une horretatik aurrera, kexa-espeditentean, kexagileak 2018an eta 2019ko hasieran zehar erakunde publiko horretan dokumentazio aurkeztu zuela (eskatzen zioten bezala) egiaztatzen duten Lanbideren hainbat ziurtagiri biltzen dira; zehatzago:

-2018-02-14: diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko 2018ko urtarrilaren 17ko eskaerari erantsitako dokumentazio osagarria, besteak beste, bizikidetz-unitateko kide guztien pasaporteak, familia-liburua eta bere bikotekide ohiaren errolda-baja (2018/53774).

-2018-04-23: alegazioak prestazioen iraungipenaren hasieran eta Etxebideri buruzko dokumentazioa (2018/130447).





-2018-10-10: dibortzio-egoerari buruzko dokumentazioa eta bere jatorrizko herrialdean jatorrizko ondasunen ziurtagiriaren eskaera (2018/329232).

-2018-10-29: jatorrizko ondasunen ziurtagiriaren itzulpenaren kopia, jatorrizkoak iristen direnean horiek ekarriko dira (2018/351006).

-2018-12-18: 2018ko uztailetik abendura bitarteko ziurtagiriak (2018/407548).

-2018-02-07: Bilboko emakumearen aurkako indarkeriaren arloko 1 zenbakiko epaitegiko presako eginbideak (2018/44893).

Auto horretan, xedapen-zatian, 6. atalean, seme-alaba komunei dagozkien ondorio pertsonalak eta ondare-ondorioak arautze aldera Epaitegiak ezarri zituen neurriak zehazten dira, bai eta Epaitegiaren arabera kargen eta mantenu-pentsioaren kontzeptu gisa aitak ordaindu beharko lukeen 300 euroko zenbatekoa ere.

-2019-01-10: diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako laguntza osagarriaren eskaera berria; hainbat agiri eskatzen dira, besteak beste: NANA eta Aljeriako nazionalitateari uko egiten dion erregistro zibilaren kopia (2019/11338).

Kexagileak aurkeztu duen dokumentazio guztia gorabehera, Lanbidek ez zituen onartu bere alegazioak eta bi prestazioak (diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako laguntza osagarria) iraungitzea eta bidegabe jasotako zenbatekoak (ia 11.000 euro) erreklamatzeko ebatzi zuen. Ebazpen hori jaso ostean, kexagileak berriro adierazi zuen ez zegoela ados eta aukerako berraztertzeo errekurtsioa aurkeztu zuen; bertan, prozeduraren hasieran emandako argudioak errepikatu zituen, baina Aljeriako ondasunen ziurtagiria eskuratzeko bere esku zegoen guztia egin zuela azpimarratu zuen. Horretaz gain, nabarmendu du 2013tik aurrera Espainiako nazionalitatea duela eta horregatik ezin izan duela eskuratu aipaturiko ziurtagiria. Azkenik, iraungipenak zein bidegabe jasotako zenbatekoen erreklamazioak bere bizikidetzaren unitatean izan dituen ondorioen berri eman zion Lanbideri, familia abiapuntuko zaurgarritasun-egoera oso larria baitzen.

Aurkeztu ostean, kexa bat aurkeztu zion Arartekoari, eta horrek, izapidetzeko onartu ostean, lankidetzaren eskatu zion Lanbideri, adierazitako egitateei lotuta. Horrez gain, aurretiko zenbait gogoeta helarazi zizkion, baina, errepikakorrak ez izatearren, gero aipatuko ditugu.

Lankidetzaren eskaerari erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak txosten bat igorri zion Arartekoari, honako hau adieraziz:

***“Buren prestazioak berriro jasotzen hastea espero den data.***

***2019ko urtarrilaren 10ean egin zuen eskaera, eta dagoeneko eman zaio, 2019ko otsailaren 21eko ebazpenaren bidez. Horrenbestez, otsailetik aurrera zenbateko***





hauek jasoko ditu: 1.161,68 €, DSBeri dagozkionak, eta 425 €, EPORI dagozkionak.

*Jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiri legeztatua aurkezteko ezintasunaren balorazioa, 2013an aljeriar nazionalitateari uko egin eta soilik espainiarra hartu ondoren; eta horrek iraungitze ebazpenean eta oker jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharraren adierazpenean dituen ondorioak.*

2018ko urtarrilaren 17an, D.B. andreak DSBEn eskaera aurkeztu zuen. 2018ko urtarrilaren 23an, beste agiri batzuen artean, zinpeko deklarazio bat aurkeztu zuen eta, horren bidez, hitzeman zuen bere jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria aurkeztuko zuela, behar bezala legeztatuta, gehienez 6 hilabeteko epean.

2018ko irailaren 13an, 6 hilabete igaro eta ziurtagiririk aurkeztu ez zuenez, entzunaldi-izapidea igorri zitzaion, eta adierazi zitzaion, ziurtagiria aurkeztu ez zuenez, ezin zela egiaztatu % 100ean ondasun higiezinik ez zuenik (ohiko etxebizitzaz edo lanerako erabil daitezkeenez gain). 2018ko azaroaren 14an ziurtagiria aurkeztu zuen, itzulita baina legeztatuta gabe. Agiri balioduna ez zenez, prestazioa iraungi zen hasieratik eta jasotako zenbatekoak erreklamatu zitzaizkion.

D.B. andreak ez zuen inoiz ere alegatu ondasunen ziurtagiria aurkeztu behar ez zuenik, 2013an aljeriar nazionalitateari uko egin izanagatik. Hain zuzen, zinpeko deklarazio bat sinatu zuen eta bertan hitzeman zuen ziurtagiri hori aurkeztuko zuela, eta bere espedientean ez zegoen jasota aljeriar nazionalitateari uko egin zionik.

Hori bai, 2019ko urtarrilaren 10ean aurkeztutako eskaera berrian jaiotza-ziurtagiria aurkeztu zuen, eta marjinako ohar batean jartzen du 2013ko azaroaren 21ean uko egin ziola bere aurreko nazionalitateari:

**Adingabearen interes gorenaren eragina, oro har, aztergai dugun kasuan eta, zehazki, BUaren kalteberatasun-egoera berezietan**

Bulego honetan ulertzen dugu prestazioa iraungitzeak galera ekonomikoa ekarri ahal izan duela, bizikidetzaren unitatea soilik D.B. andreak eta haren hiru seme-alaba adingabeek osatzen baitute. Dena den, uste dugu egoki jardun genuela; izan ere, Lanbidek ez zeukan informazio guztia bere esku (ez genekien nazionalitate aljeriarrari uko egin zionik) eta ez dago halako bizikidetzaren unitateak txosten hori aurkeztetik salbuesten dituen araudirik.

**Genero-indarkeriaren testuinguruak eta prestazioa iraungitzeak zer-nolako eragina duten BU osoaren kalteberatasun-egoera berezietan**

Ulertzen dugu bizikidetzaren unitatean sortu ahal izan den galera ekonomikoa, baina berriro diogu Lanbidek ez zituela datu guztiak, eta ez dago genero indarkeriaren biktimak beren jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria aurkeztetik salbuesten dituen araudirik.





### **Beste datu interesgarri batzuk**

*Argitu nahi genuke zergatik egin diren okerreko kobrantzak eta zergatik iraungi den prestazioa; izan ere, zuk igorritako idazkian oker jasotako zenbatekoak erreklamatzeko arrazoiak agertzen dira prestazioa iraungitzearen arrazoi gisa.*

*Batetik, prestazioa iraungi zitzaion bere jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria, behar bezala legeztatua, ez aurkezteagatik. Bere herrialdean ondasunik ez duela egiaztatu ezinenez, prestazioa iraungi egin zitzaion eta laguntza onartu zitzaionetik jasotako zenbateko guztiak erreklamatu zitzaizkion.*

*Bestetik, 2018ko irailaren 6an zeukan hitzordura azaldu izan ez balitz, EAera itzuli zela jakinarazteko, hilabeteko etenaldia izango zukeen (2018ko abendua), Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren titular gisa dagozkion betebeharrak ez betetzeagatik (dagokion modalitatean), baila indarreko araudiaren arabera aplikatzekoak zaizkion gainerako betebeharrak guztiak ere.*

*Amaitzeko, oker jasotako zenbatekoak erreklamatzeko hiru arrazoi daude: batetik, lehen azaldu bezala, kobratutako guztia erreklamatu zitzaion, ondasunen ziurtagiria ez aurkezteagatik. Bestetik, 15 egun baino gehiago eman zituen EAetik kanpo; hortaz, 2018ko abuztuaren 20tik 2018ko irailaren 10era bitartean jasotako zenbatekoak erreklamatu zaizkio. Azkenik, 2018ko maiatzaren 16ko autoaren arabera, 300 euroko mantenu-pentsioa jasotzeko eskubidea du, eta hori ez zen zenbatu ordura arte”.*

Azkenik, bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra ebazten duen prozeduraren ebazpenaren kontra kexagileak aurkezturiko aukerako errekurtsioa ezetsi egin zen Lanbideren 2019ko martxoaren 15eko ebazpenaren bidez.

Diru-sarrerak bermatzeko errentari/etxebizitzarako laguntza osagarriari aitorturiko prestazioak 2019ko otsailaren 21eko ondorioekin berrabiarazi ziren arren, bi prestazioen 11.000 euroak itzultzeko betebeharraren adierazpena mantentzen du; arrazoi hauek direla eta: (1) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egotea diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearekin baimentzen dena baino denbora gehiago; (2) diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubiderik gabe irten izana 2018-08-20tik 2018-09-10era bitartean; (3) mantenu-pentsioagatik diru-sarrerak: 2018-05-16ko Autoaren arabera; (4) beste arrazoi batzuk: Baliozko ondasunen ziurtagiria ez aurkeztu izana horretarako ezarritako epean. Hori horrela, Lanbidek bere lankidetzatxostenean aitortzen duenaren arabera, "...gaur egun kalte ekonomiko larria da bizikidetzatxostenean, hilerok, Lanbidek aipaturiko zorra likidatzeko zenbateko bat deskontatzen baitio”.

Hortaz, beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

### Gogoetak





1. Kexagileak (jatorriz aljeriarra) Espainiako nazionalitatea eskuratzearen ondorioei dagokienez.

Kode Zibileko I. tituluko ("Espainiarrak eta atzerritarrak") 18-23 artikuluetan (biak barne) atzerritarrek Espainiako nazionalitatea eskuratzeko moduak eta baldintzak arautzen dira.

Zehazkiago, 23.b) artikuluan honako hau ezartzen da: *"Aukeraren bidez, herritartze-agiriaren bidez edo bizilekua izatearen bidez, Espainiako naziokotasuna eskuratu eta eskuraketa hori baliozkoa izan dadin, baldintza erkide hauek bete behar dira:*

*(...) b) Pertsona berberak adierazi behar du aurretiazko naziokotasunari uko egiten diola. Betekizun horretatik salbuetsita geratzen dira 24. artikulua 1. paragrafoan aipatutako herrietakoak."*

Espainiak eta Aljeriak orain arte ez dute nazionalitate bikoitza baimentzen duen hitzarmenik sinatu; hortaz, kexagileak jatorrizko nazionalitateari, aljeriarrari, uko egin behar izan zion 2013an gaur egun duen nazionalitatea, espainiarra, eskuratzeko; espedientean jasotzen den dokumentazio ofizialarekin egiaztatu zuen bezala. Horrek asko zailtzen du Aljeriako agintarien aurrean edonolako kudeaketarik egitea.

Zentzu horretan, honelako ziurtagiriak eskuratzeko hasierako zailtasunari (erakunde honek behin eta berriz aipatzen duena), kasu honetan, beste oztopo batzuk gehitzen zaizkio, Espainiako nazionalitatea eskuratu ahal izateko Aljeriako nazionalitateari uko egin izanaren ondoriozkoak. Hori dela eta, Aljeriako agintariek ezin dute beren nazionaliei ez dagozkien dokumentuak igorri.

Horregatik, dokumentu hori aurkezteko betebeharrak dakartzan zailtasunei buruzko hausnarketa azpimarratu nahiko nuke; bai eta dokumentu horren balio urria eta zalantzazkoa ere, dokumentuaren igorpenak ez baitu betetzen inongo nazioarteko estandarrik. Beste kasu batzuetan adierazi den bezala, [diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen](#)<sup>10</sup> 16.c) artikuluan eta arestian aipaturiko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.3 artikuluan aurreikusitako baldintza egiaztatzeko baldintza bete daiteke egoitza-tokiko Administrazioak igorritako beste dokumentu batzuen bidez.

Espediente honetan Espainiako nazionalitatea eskuratu izana hasiera batetik kontuan hartu beharko litzatekeen funtsezko elementu bat da.

Jasotako erantzunean adierazten den bezala informazio hori berritzailea bazen, horrek ez luke galarazi beharko osatu gabeko informazio batean oinarrituta egindako erabazpenak ofizioz berrikustea.

<sup>10</sup> Ikusi: [diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legea](#).





2. Atzerritar jatorria duten pertsonen jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria eskuratzeko duten zailtasunaren harira.

Arartekoak badaki garrantzitsua dela Lanbidek berrikustea baldintza guztiak betetzen direla prestazioaren onuradun izateko. Baina erakunde honetan kexa bat aurkeztu duten pertsonen dagokienez, askotan egiaztatu du ere zailtasunak dituztela jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria emateko, eta horrenbestez, askotan adierazi dio Lanbideri baldintza horri buruz hausnartu egin behar dela, kasu askotan baldintza hori betetzea ezinezko bihurtu baita.

-Araudian, aipaturiko prestazioen titularra izateko baldintza hauek daude ezarrita (diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16.c) artikulua eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.3. artikulua):

*“Nahiko baliabiderik ez edukitzea. Horrelako baliabiderik ez daukatela joko da honako baldintza hauek guztiak betetzen direnean:*

- *“Bizikidetzaren unitateko kide-kopuruaren arabera legokiokeen gizarteratzeko eta gizarterababeserako oinarritzko errentaren hileko zenbatekoaren azpitik dauden diru-sarrerak edukitzea hilean.*
- *Ondasun higiezinik ez edukitzea, ohiko etxebizitza izan ezik, betiere etxebizitza horrek aparteko baliorik ez badu, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.*
- *Dauzkaten dirua eta baloreak gehienez ere honenbestekoak izatea: batere baliabiderik ez luketen kasuan bizikidetzaren unitateko kideen kopuru osoaren arabera legokiokeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren urteko zenbatekoa halako lau”.*

Nolanahi ere, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen 2017 Diagnostiko-txostenean<sup>11</sup> aztertu genuen bezala, Arartekoaren iritziz, nahikoa da interesdunak egiaztatzea ez duela behar adina baliabide, eta hori zenbait frogabideren bitartez egiaztatu dezake, ez bakarrik agiri jakin bat aurkeztuta. Hain zuzen ere, legegileak ez zuen ezarri legeztatutako ondasunen ziurtagiria aurkezte *condictio iuris* zenik, hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako laguntza osagarria jasotzeko sine qua non baldintza zenik.

Zehazkiago, araubideak ezartzen du herri-administrazioek egokitzat jotzen dituzten agiriak eska ditzaketela baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, baina ez du zehazten agiri jakin hori eskatu behar dutenik. Halaber, xedatzen da interesdunek beste agiri batzuk aurkezteko aukera dutela.

---

<sup>11</sup> Eskuragarri hemen: [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4199\\_1.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf)





-Zentzu berean, [herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen](#)<sup>12</sup> 28. artikuluan honako hau aurreikusten da:

*“...Administrazio-prozeduran interesdun direnek ekarritako dokumentuak.*

*1. Interesdunek administrazio-prozedurara ekarri beharko dituzte administrazio publikoek aplikatzekoa den araudiaren arabera eskatzen dituzten datu eta dokumentuak. Komenigarritzat jotzen duten beste edozein dokumentu ere ekar dezakete interesdunek...”*

Era berean, [diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren](#)<sup>13</sup> 29.1.l) artikuluan, eskatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen bestelako dokumentuak txertatzeko aukera aurreikusten du, eta m) atalean ezartzen denaren arabera, Administrazioak baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen beste dokumentu batzuk eskatu ahalko dira.

Ondorioz, Lanbidek beste dokumentu batzuk eska ditzake betekizunak betetzen direla egiaztatze aldera, baina, Arartekoaren iritziz, botere hori moldatu egin daiteke, proportzionaltasun-printzipioa kontuan izanik eta froga bere osotasunean balioztatuz, ondasun higiezinak eta baliabide ekonomikoak nahikoak ote diren zehazteko. Beste frogabide batzuk daudenean dokumentu bat aurkeztu ezin ahal izateak ez luke eskubide bat emateko aukera baldintzatu behar. Kontuan hartu behar da, laburbilduz, jurisprudenziak esan duen moduan, administrazioak ezin duela arbitrarioki edozein agiri eskatu; aitzitik, ebazpena emateko oinarritzat hartu behar diren datuak zehazteko ezinbestekoak direnak soilik eska ditzake (1997ko uztailearen 7ko Auzitegi Gorenaren Epaia).

Esparru orokor horretan, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria eskatzen duten atzerritarrei eskatzen zaien agiri hori, jatorrizko herrialdean ondasunik ez duela frogatzen duena, berria da, erakunde honek behin baino gehiagotan adierazi duenez, eta, dokumentu hori jaulki ahal izateko, ezinbestekoa da administrazioak modernoak izatea eta informatizatuta egotea, eta pertsona horiek toki-, estatu- zein nazioarte-mailan ondasunik ez dutela jasotzen duten erregistro zentralizatuak izatea. Hala ere, orain arte ez da sinatu nazioarteko lankidetzaren hitzarmenik, arautzen duenik agiri horiek modu fidagarrian jaulki ote diren, eta zer betekizun bete behar dituzten. Gabezia horiek ezin zaizkie egotzi gizarte-bazterketan daudenei, eta ez lukete eragin behar eskubide subjektibo bat, zehazki oinarrizko premiak asetzea helburu duten prestazioak, aitortzeko orduan.

3. Ebazpena, bi prestazioen 11.000 euro baino gehiago itzultzeko betebeharra adierazten duena, arrazoi hauek direla eta: (1) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egotea diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearekin baimentzen dena baino denbora gehiago; (2) diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubiderik

<sup>12</sup> Ikusi: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2015/BOE-A-2015-10565-consolidado.pdf>

<sup>13</sup> Ikusi: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/06/1003020a.pdf>





gabe irten izana 18-08-20tik 18-09-10era bitartean; (3) mantenu-pentsioagatiko diru-sarrerak: 18-05-16ko Auto bidez; (4) Beste arrazoi batzuk: baliozko ondasunen ziurtagiria ez aurkeztu izana horretarako ezarritako epean, ez litzateke zuzenbidera egokituko aplikagarria den araudiaren arabera (diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 56. eta 57. artikulua).

Ararteko honek adierazi behar du motibazioaren (1) eta (2) puntuei dagokienez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrek EAetik irteten direnean jakinarazteko betebeharra Arartekoaren Diagnostikotxostenean aztertu zen eta 2017ko diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioen kudeaketa hobetzeko proposamenak egin ziren eta Arartekoaren hainbat ebazpenetan islatu ziren<sup>14</sup>.

Hirugarren arrazoiari dagokionez, "Mantenu-pentsioagatiko diru-sarrerak", Ararteko honen [Arartekoaren 2019ko maiatzaren 17ko 2019S-2469-18 Ebazpenean](#)<sup>15</sup> txertaturiko gogoetei helduko diegu. Ebazpen honen kasuan, Lanbidek hainbat alditan izan du Bilboko emakumearen aurkako indarkeriaren arloko 1 zenbakiko epaitegiaren 2018ko otsailaren 6ko autoaren (9/2018) zein epaitegi berberaren egun bereko urruntze-aginduaren (64/2018) nahiz 2018ko maiatzaren 16an sustaturiko auzi-dibortzio eskaeraren egoeraren berri. Era berean, bazekien kexagileak urruntze-agindua zuela, aita auzi-iheslaritzat jo zela eta guraso eta seme-alaben arteko neurriak sistematikoki urratzen zituela, ez baitzuen inoiz ordaindu bere seme-alaben mantenu-pentsioa. Horri gehitu behar zaio, mantenu-pentsioa ordaindu ez diotela salatzeke, kexagileak doako laguntza juridikoa eskatu izan zuela egiaztatu zuela. Euskal Autonomia Erkidegora itzuli izan jakinarazteari dagokionez, erakunde hau Arartekoak betebeharrak hori betetzeko eskakizunean lege-estaldura faltaren harira behin baino gehiagotan errepikatu dituen gogoetei lotzen zaie.

4. Azkenik, prestazioak iraingitzeko ebazpenaren zein diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharraren adierazpenaren harira, azpimarratu behar dugu bizikidetzaren unitate bati onartutako diru-sarrerak bermatzeko errentak eta etxebizitzarako prestazio osagarriak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen esparruan, eta besteak beste diru-sarrerak bermatzeko errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak garatutakoak, gizarte eta lan bazterkeria-egoerak arintzea dutela helburu nagusi; bai eta

<sup>14</sup> 2017R-2024-16 Ebazpena, 2017ko martxoaren 27koa; 2018R-2131-17 Ebazpena, 2018ko apirilaren 13koa; 2017R-2183-15 Ebazpena, 2017ko maiatzaren 18koa; eta 2018R-2491-17 Ebazpena, 2018ko martxoaren 23koa: "Arartekoaren aburuz, deigarria da Lanbidek EAetik kanpo egiten diren irteerak aurretik jakinarazteko betebeharra bete dadin eskatzea, legegile autonomikoak ez zuelako betebeharrak hori jasotzea, eta jarraibide horiek Lanbidek onartutako irizpideen dokumentuetan bakarrik daudelako jasota. Ezin daiteke onartu eskubide bat ukatzea, etetea edo iraingitzea eragin dezaketen erabakiek arau-babesik ez izatea, aplikatzeko den eskuliburuan —Lanbideren irizpideen dokumentua, 2017ko maiatzean eguneratutakoa— jasotako irizpidea oso zentzuzkoa izan arren."

<sup>15</sup> Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio berrikeria ez dela herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria iraingitzeko ebazpena; izan ere, erakunde honen ustez, interesdunaren genero-indarkeriako egoera —osasun- eta polizia-txostenen eta txosten judizialen bidez egiaztatu da— eta adingabearen interes gogenerako eskubidea behar bezala haztatuz gero, ez da urratu eskubide edo prestazio ekonomikoak baliatzeko betebeharra. Eskuragarri hemen: [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4732\\_1.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4732_1.pdf)



herritarren gizarte-eskubideak berariaz erabiltzeko nahikoa gizarte edo ekonomia baliabideak eta baliabide pertsonalak ez dituzten pertsonak gizarteratzen laguntzea ere (1. art.)

Testuinguru horretan, seme-alabak dituzten emakumeek osaturiko guraso bakarrek familiak pobrezia-egoeren eraginpean daude, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta erreferentziatzeko beste erakunde batzuek egindako txostenetan<sup>16</sup> eta diagnostikoetan islatzen den bezala<sup>17</sup>.

Horregatik guztiagatik, erakunde honek, hizpide dugun kasuan, berriro azpimarratu behar du **politika publikoetan eta, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman, adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharrari buruzko Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorren**<sup>18</sup> garrantzia. Araudiaren aplikazioa aztertzen zen bertan haurren arloan adostu diren nazioarteko tresnak kontuan hartuz. Horrez gain, berriz ere azpimarratu zen oso garrantzitsua dela gure ordenamendu juridikoan (Nazio Batuen 1989ko Konbentzioa, Haurren Eskubideei buruzkoa; uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa; urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa) ageri den adingabearen interes gorenerako eskubidea kontuan hartzea.

Ondorio gisa, Arartekotik honako hau ulertzen dugu:

-Bizikidetzaren unitateari aitorturiko prestazioen **iraungipen-ebazpenari** dagokionez, Lanbiden, kexagileak egindako diru-sarrerak bermatzeko errenta-eskaera bat jasotzen da, 2018ko urtarrilaren 17koa; bertan agertuko litzateke Espainiako nazionalitatea zuela 2013tik. Era berean, kexagileak 2018ko otsailaren 14an bizikidetzaren unitateko kide guztien pasaportearen kopia eta familia-liburua aurkeztu zituela egiaztatzen duen erakunde publikoaren ziurtagiria dago.

Hortaz, erakunde honen arabera, une horretatik aurrera, **ez zen bidezkoa izan espainiar nazionalitatea zuen emakume bati alde aurretiko zinpeko aitortzea eta jatorrizko ondasunen ziurtagiria eskatu izana**, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko edo mantentzeko baldintza edo betebehar gisa.

-Lanbidek aipaturiko prestazioetatik bidegabe jasotako **zenbatekoak** (ia 11.000 euro) **itzultzeko betebeharra** aitortzeko emandako **ebazpenari** dagokionez, Lanbidek emandako motibazioak: alde batetik, "EAEtik kanpora egindako bidaia batetik itzuli izanaren berri ez emateak" ez du esan nahi ez dela bete araudian ezarritako

<sup>16</sup>Pobrezia eta Gizarte-Ezberdintasunei buruzko Inkestaren (PGEI) emaitzen 2016ko txostena.

[Eskuragarri hemen:

[https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas\\_evaluaciones\\_2/eu\\_def/adjuntos/exclusion\\_pobreza\\_eu.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/eu_def/adjuntos/exclusion_pobreza_eu.pdf)].

<sup>17</sup> EMAKUNDE 2018 Txostena: "Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa gizarte-bazterketaren eta txirotasunaren esparruan": [Hemen eskuragarri:

[https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas\\_evaluaciones\\_2/eu\\_def/adjuntos/exclusion\\_pobreza\\_eu.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/eu_def/adjuntos/exclusion_pobreza_eu.pdf)

<sup>18</sup> Eskuragarri hemen: [http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_3662\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3662_1.pdf)





betebeharra, Ararteko honetatik gure ebazpen eta txostenetan behin baino gehiagotan errepikatu izan dugun bezala. Beste alde batetik, “mantu-pentsioagatiko diru-sarreraren” motibazioa, araudi aplikagarriaren interpretazio zabala eskatuko luke eta, azkenik, ezarritako epean “jatorrizko ondasunen ziurtagiri balioduna ez aurkeztu izanak” ez du esan nahi titularrak ez zuela baldintza edo betebeharren bat bete, 2013tik Espainiako nazionalitatea baitzuen eta, hori dela eta, araudiaren arabera, ez zuen aipaturiko baldintza edo betebeharra bete behar.

Horrenbestez, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —Arartekoa sortu eta arautzekoak— 11. b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako gomendio hau egiten zaio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

### **GOMENDIOA**

Arartekoak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen dio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta aitorturiko etxebizitza-prestazio osagarria jasotzeko eskubidea deuseztatzen duen ebazpena berrikus dezala, jatorrizko ondasunen ziurtagiria ez aurkeztu izanagatik ez dagoelako horiek deuseztatzeko arrazoirik, izan ere, kexagilea jatorriz Aljeriakoa den arren, Espainiako nazionalitatea du 2013tik, eta hori horrela, ez ditu bete gabe utzi diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular gisa zituen betebeharretako bat ere.

Era berean, Lanbideri gomendatu dio berrikus dezala bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra aitortzen duen ebazpena, Lanbidek gertakari horretan zein beste bi motibaziotan oinarrituta arrazoitzen baitu; bata, araudian jasotzen ez dena, eta bestea, araudi horren interpretazio zabala egiten duena.

